



Mikel Martiarena
Barkaiztegi (*)

Lesueur bidea

ED, 6b/A1 M8, (850 m)

■ Rapel tenteak

"Henri eta Pierre Lesueur, 1952ko uztailaren 25-27a.

Bide hau Dru Txikiaren ipar horma zeharkatu, Druen Lepora doan korridorea gurutzatu eta Dru Handiko ipar aurpegian bukatzen da. (...)

Eskalada honek bai artifizialeko eta bai libreko zailtasun oso handiak erakusten ditu. Lehen eskalatzaileek izotz asko aurkitu zuten igoeraren bukaera aldera, nahiz eta garai haietan ipar hormak oso egoera onean egon.

Bide hau ez du inork errepikatu." (**Vallot Gida, 1979**)

"1983ko urtarrilaren 10-13an Andy Parkin eta Thierry Renaultek egindako bide honen 3. igoera eskalada mistozko abangoardiako lorpena izan zen." (**Neige Glace et Mixte, François Damilano, 2005**)

Esperientziak, aukerak agertzen direnean aprobetxatzen erakusten digu.

Aspaldi ez nuela Erwan ikusten, baina ikusi bezain pronto berehala esan zidan Dru-en ipar paretan sartzeko asmoa zuela

beste lagun batekin. Beraiekin joateko gonbidapenaren aurrean ez nuen dudarik izan eta baiezkoa azkar eman nion, baldintzak jakin eta aztertu gabe.

Erwan eta Bastien, goi mendiko gidariak izateaz gain, Chamonixeko Polizien Eskolako mendiko irakasleak dira. Paretan egoerei beti adi eta *Mont Blanc* inguruan egiten diren igoeren informazioa nahiko ona izan ohi dute. Azaroaren 19an, astelehenarekin batera, *Montenverseko* trena hartu dugu.

Igande arratsaldean hasi nintzen nire motxila prestatzen eta bidearen informazioa biltzen... ui, ui, ui... Ipar paretako bide bakarra ezagutzen nuen, Allain bidea, klasikoa, eta hori baino nahiko zailagoa da *Lesueur*. 1983ko neguan eskalatu zuten Parkin eta Renaultek, baina geroztik oso eskalatzaile gutxi ibili dira bide hori egiten. 2012ko martxoan egin diren igoerek (Ueli Steck, Jhon Griffith eta beste batzuk) biziberritu dute bidea. Misto gogorra, itzala eta bibakak eskaintzen dizkio inguratzen denari.

Deseroso eta arduratuta oheratu nintzen igandean. Nire motxila ez zegoen guztiz prestatuta eta pasako nuen hotz edo beroaren aurrean kezka asko nituen. Lozaku txikia, eskularru eta txamarra lodiak, bota arinak (arinegiak ote?), janaria... Zein hartu eta zein utzi? Pisu gehiegirekin ezin da eskalatu eta zama txikiak hotza gehi gosea esan nahi du.


Trena. Erwan eta Bastian oso atseginak dira. 28 eta 25 urte dituzte eta apalak dira oso. Barre asko egiten dugu elkarrekin. Bihotzez maite dute mendizaletasuna eta beraien ogibide ere bihurtu dute. Hala eta guztiz ere, *Chamonixeko* eta alpinismoaren inguruan dauden sasi-jakintsuen inguruan barre saio ederrak egin ditugu. Datorkigun eskaladari pisua eta tentsioa kentzeko balio duten barreak.

(*) Mikel Martiarena Barkaiztegi (Urneta, 1973). Deustuko Unibertsitatean Enpresa Administrazio ikasketak eginak. Azken urte hauetan Euskal Herritik kanpo bizi izan da, Brasil, Txile eta Chamonix ondoan dagoen Comblouxen azken hiruak. Eskarmentu handiko eskalatzailea, diziplina guztietako eskalada egiten baitu: harkaitza, izotza, parabolta, frienda, kirol eskalada eta bide handiak. Europako mendiak, Pirinioak, Alpeak eta Andeetan hamaika bide berri ireki edo errepikatu ditu: Yosemite, Peruko Mendikate Zurian, Bolibiako Mendikate Errealean eta Quimsa Cruz-en, eta Txileko Andeetako Morado, Arenas, Cordon Garnito eta Cochamónen esate baterako.



LESUEUR bidea ED 850m

Henry eta Pierre Lesueur
1952, Uztailak 25-27 (VI, 5, M7, 6b/A1)



Erwan Madoret, Bastien Duchatel eta Mikel Martiarena - 2012, Azaroak 20-21

La vía Lesueur

Mikel Martiarena nos relata la ascensión que llevó a cabo en noviembre con sus amigos Erwan y Bastian a la vía Lesueur en la cara norte del Petit Dru (3.754 m). La Aiguille du Dru (también la Dru o las Drus) es una montaña en el macizo del Mont Blanc en los Alpes franceses, que quedan al este del pueblo de Les Praz en el valle de Chamonix. La vía Lesueur es una vía que recorre la cara norte y fue abierta en el año 1952 por los hermanos Pierre y Henri Lesueur. Se trata de una escalada, esencialmente en terreno mixto técnico, limpia, rápida y exigente por la que han escalado afamados alpinistas como John Griffith y Ueli Steck.

12:30ak eta *Montenverseko* tren geltokian gaude. *Mer de Glace*ko glaziarrera jaitsi, gurutzatu eta *Charpoua* aterperantz doazen eskailera zirrargarriak hartu ditugu. Oso tenteak dira.

Hemendik bi bide daude: eskuinerantz *Charpouako* aterpera eta ezkeralderantz (gure bidea) *Druen* ipar hormarantz. Ipar eta mendebal hormen ondoan dagoen harkaitz baterantz goaz. Bere azpian 4 pertsonentzako bibak aproposa dago. *Rognon* izena du eta azken 100 urteotan eskalatzaileek poliki bada ere, ederki txukundu dute. Gaur egun nahikoa eroso da. Lanak aurreratzeke Erwan eta biok bidearen hasiera ikertu nahi izan dugu ilundu aurretik eta lehenengo luzea igotzea lortu dugu. Sokak biharamunerako finkatuak utzi ditugu. Ilunpean itzuli gara *Rognonera* eta iratzargailuaren alarma goizeko 03:00etan

jarri dugu. Gauean bakoitzaren duda-mudak lanean ari dira. Ez dakigu lortuko dugun edo ez.

Asteartea. Danba! Erwan zintzilik dago Tibloc batekin soketara utsita. 04:45ak dira. Atzo pasatako errimaia gaineko zubian hanka jarri duenean zubia erori egin da. Eskerrak atzo behintzat utsi zuenari. Zintzilika pasa beharko dugu denok. Bigarren luzearen hasieratik ikusi dugu dry-toolingeko sesioetan ikasitako guztiak erabiltzeko garaia iritsia zaigula. Eskalada ezin ederragoa hasieratik. Izotzutako elur mingainak goitik behera pitzaduretan, baina toki askotan ez dago elur edo izotzik eta beste askotan oso firi. Makina pausutan bai piolet eta bai kranpoiak zuzenean harri gainean arituko dira lanean. Kakoak, aldeko mugimenduak, kranpoien puntak harria



■ Mikel, 22. luzea aseguratzen

harramaskatzen zulo txiki bila. Gehienetan, ordea, gure eskalada aseguratzeko puntu onak aurkitzeko arazorik ez dugu aurkitu. Hori oso ona da. Bide osoan 5 edo 6 aldiz bakarrik jarri ditugu izotz torlojuak eta beste denbora guziaz friend-ak edo zintak harri-koskorren bueltan jartzen babestu dugu gure eskalada.

Lehenengo kanalean hiru luze egin eta jarraian 120 metro inguru aldi berean eskalatu egin ditugu. Egunsentiak biderearen lehen diedro gogorrean harrapatu gaitu. Eutsi goiari! Tentsio pixka bat, diedro eder bat itsatsitako elur txar batekin. Hanka dardar batean hasieran, baina metroak pasa ahala Erwan lasaitu eta azkar iritsi da goraino. Chapeau! Aurrena doanak motxila arina darama eta bi bigarrenok astunagoak (lo egiteko zakuak eta abarrek).

Sokamuturrak aldatu ditugu eta orain ni nago aurretik. 15 metroz babes ezina den placage bat dut aurrean; harkaitzari itsatsita dagoen izotz xafla fina, torlojuak jartzeko finegia alegia. Honelakoetan hasi eta gelditu gabe jarraitzea da hoberena. Erritmoa, erritmoa! Hirurak gelditu gabe ari gara eta ni buruan nagoenean taldearen pausua ez galtzen saiatzen naiz. Bidea oso argia da. Diedro eta tximinien segida garbia. *Griffitek* bide hau eskalatzeko bereziki sortua dela dio. Puff!!! Nire aurrean dagoen hurrengo luze hau argazkietan ikusia dut. Nire txakur zahar teknikak erabiliko ditudalakoan nago. Zaila eta beldurgarria da. Batzuek M7 eta besteek M8 ere eman diote misto modernoaren zailtasun mailan. Gelditu eta Erwan librea ez dakidala lortuko dudan egitea esan diot. Berak saiatu nahi du eta berriro sokamuturrak eman dizkiot.



■ Erwan, 8. luzean

Bi pitzadura eder doaz tximinia motz baterantz. Tximinia gainean desplome handi batek eskuinera agertzen den pitzadura batera bidaltzen zaitu. Erwan gorantz doa oso urrats kementsuak emanez. Hanka zabal zabalik jarri ditu paretaren alde bakoitzean eta tximinian gora arnastetuka eta desafioka dabil. Kranpoien soinua entzun dezakegu bilera lekutik. Azkenik, tximinia amaierako desplomearen azpian dago. Bi oinak eskuineko paretan eta bizkarra ezkerrekoan. Camalot 4a, oso friend potoloa, sartu du desplomeko eskuineko pitzaduran. Friend hau makina pausu zailtan erabiliko dugu bide osoan. Pentsatzen ibili eta gero, pioletak lepo atzean gorde, eskularruak kendu eta esku hutsez eskalatu du desplomearen eskuinaldeko pausua. Irrintzi bat bota eta goian da, bilera egiten. Eskalada librearen gozoak. Gure eguneko hamaikagarren luzea da. Atzetik goazenok nahikoa lan ditugu luzea eskalatzeko. Motxilak behera nahi eta guk, aldiz, gora. Bideak ez du etsitzen, gogor jarraitzen du. Eskalada oso ederra da, elur izotzua egoera onean da eta pausua bata bestearen ostean datoz sinfonia aluzinagarrian.

Eguneko pasarte gogorrena ordea 13. luzean izan dugu. Sei metroko pitzadura zabal baten gainean erlaintz txiki bat eta hortik gora beste lau metroko tximinia off-width bat (off-width : pitzadura bat, non friendak eskuak edo oinak erosoki trabatzeko zabalegia den baina gorputza tximinia moduan sartzeko estuegia. Oro har izerdi, postura txar, desafio eta dardaren augurio). Nola edo hala gorputz erdia barruan sartu eta bi aldeetara presio eginez apurka-apurka igotzen diren horietakoa. Goiko aldean, gehiago igo ezin dugunean, etsipenez pioletak gorantz bota goitik datorren elur mingaineraino iristeko itxaropenez. Ez dakit lortuko dudan. Azken energiak dira. Pioletak eutsi du, offwidth-etik atera dut gorputza eta gorputzaren nekeak goragalea ere eman dit. Goragalea bai, lanaren ostean. Arnastetuka eutsi eta Bastien-i zoriontzeko besterik ez zaigu gelditzen. Bera zegoen buru luze honetan eta nekea ere aurpegian ikusten zaio.

Hemendik aurrera daramatzagun krokisa jarraitzea ez da erraza. Pareta handia da eta elur sail batzuk gurutzatu behar dira. Elur zelai hauek ordea itxura berdintsua dute eta bibaketik gertu egon beharko genuke. Azkenean, 16. luzearen gainean aurkitu dugu lo egiteko lekua. Hirurok eserita egoteko moduko erlaintz bat landu dugu pioletekin. Afaldu aurretik, hurrengo luzea ere eskalatu eta sokak zintzilik utzi ditugu goizaldean azkar hasteko.



ARGAZKIAK MIKEL MARTIARENA BARKALZTEGI

■ Gailurra Erwan, Bastien eta Mikel

Bibaka. Afaldu, erdi eserita instalatu eta gauari pasatzen utzi. Gau magikoa. Mila metroko paretaren baten erdian, elurretan landutako koska batean, hankak zintzilika. Bizitzen ari garen abentura benetan gozatzeko aukera.

Asteazkena. Goizeko 03:00retan esnatu eta 04:15etarako berriro sokan gora gabiltza. Gaur ni hasi naiz goizetik sokaburu. 16 eta 17. luzeak ongi pasa ditut baina 18.a ez da hala nolakoa izan: elur saila jarraituz hogeita bost bat metro egin ditut ertz baten ostean ezkererantz. Bilera egin beharrean ordea, gora jarraitzea erabaki dut guztiz lehorra dagoen pitzadura batean zehar. Baina gorago pitzadura hau asko zabaldu da eta elur oso eskasa besterik ez dago. Nire friend handiena (Camalot 4) gorantz daramat eta bakoitzean eta okerrago ari da gelditzen. Pitzadura zabalegia da. Denbora aurrera doa eta azkenean, friend-a utzi eta babesik gabe noa gorantz. Ezkerreko bota ez da ongi trabatzen pitzadura paralelo horretan, esku hutsik ari naiz eskalatzen, ezkerreko eskuarekin aldeka hartzen dut pitzaduraren eskuin alde borobildua eta ez dut heldulekurik horman beste eskua, pioleta edo kranpoia jartzeko. Azkenik Dulferr moduko mugimenduak eginez gainditu ditut beste bi metro. Orain ezin dut behera jaitsi eta kili-kolo utzitako friend-a ni baino 3 metro beherago dago. Sokek ordea, zeharkaldi luze bat egiten dute eskuinerantz ertzaren bestaldean desagertzeko, 45 metro beherago. Ez da erortzeko garaia.

Bi oinak pitzaduran sartuta, ezkerreko eskuarekin pitzadura aldeka hartuz, oreka mantenduz eta mantxo-mantxo, nire gerrian zintzilik dudana pioleta hartu nahian nabil eskuineko eskuaz. Azkenean lortu dut eustea eta indar askorik egin gabe goiko elurrean sartzen saiatu naiz. Eutsi duela dirudi. Konfiantzarekin pisu guztia pioletean jarri eta

besoarekin tiratuz pitzadura gaineko elur saileraino igo naiz. Poliki eta kontu handiz eskuin aldera beste 5 metro egin eta bilera salbatzailea antolatuz leku aproposera iritsi naiz.

19. luzean 5 metroko 6b zailtasuneko pitzadura desplomatu lehor batera iritsi arte. Brrrr! Goizeko 07:00etan ez gara gutako inor pauso atletikoak egitera ausartu. Artifizialeko pauso erraz batzuen ondoren egina zegoen. Pitzaduran bi egurrezko tako prehistoriko eta gainean iltze bat daude. Alajaina! Bide klasiko asko ez bezala, Lesueur bideak oso iltze gutxi ditu (neguko baldintzetan behintzat). Denera ez ditugu 10 iltze baino gehiago aurkitu.

21. luzearen ostean, ipar korridorean sartu gara. Goizeko 10:30ak. Arratsalderako eguraldi aldaketa datorrela eta korridorean gora jo dugu zuzenean. Dru txikiko gailurrean eguerdirako iritsi gara. Azkenean eguzkitan. Gure aurrean Jorasses, Mont Blanc eta Aiguille du Midi.

Meteoak esan bezala, hodeiak badatoz hegoaldetik eta ez dugu denbora askorik izan argazkietarako. Druen Lepora jaitsi eta 14 rapel bota behar izan ditugu ipar korridorean behera, hauetako 8 abalacov sistemarekin. Glaziarrean oinak jarri ditugunean eta sokak askatu, lasaitu ederra hartu dugu hirurok. Orduan besarkadak eta *ikusialdek*-ak.

15:30etan berriro Rognonen gaude azken gau bat pasatzeko asmoz. Bi ordu beranduago, laino artean bete-betean murgildurik gaude eta gauean 10 zm elur bota digu. Gaua ametsen mundura. Nolakoak izango ote dira gauak paretaren horretako balkoi batean eserita? □

DRU: historia laburra

CHAMONIXERA iristen garenean, Aiguille Vert aldera begiratu eta granito biziko 1000 metroko piramide tente honek gure eskalatzailer begia erakartzen du, posible denaren eta ez denaren arteko muga bete-betean ezarritik. Gure burua beste lekuetan kontzentratzen dugu, egin nahi ditugun proiektuak, Mont Blanc, teleferikoak, nola ote dagoen glaziarra, burukomina izango ote dudan, jende asko ote dagoen, aterpean erreserbarik ba al dugun, meteoak zer dioten eta abarretan. Tarteen behin, begirada batek Dru aldera ihes egiten digu, ametsen mundura. Nolakoak izango ote dira gauak paretaren horretako balkoi batean eserita?

"Harrizko piramide erraldoia, Dru Orratza Mont Blanc mendilerroko ilura puruenetako bat da..." Horrelaxe hasten da Vallot gidaliburu ezaguna Dru-ei buruz dagokion atalean.

Dru Txikia (3754 m), Dru Handia (3733 m) eta bien arteko lepoa (3697 m). "Dru Txikia Handiaren sorbaldatzat hartuko genuke historiak berak bestela erabaki ez balu" jarraitzen du Vallot gidak. Bi gailur hauen lehenengoak eta beraien bide handieneko goerak alpinismoaren historian egun garrantzitsuak dira.

- 1878: Dru Handiaren lehen igoera **Clinton Thomas Dent**, James Walker Hartley, **Alexandre Burgener** eta K. Maurer-ek irailaren 12an.
- 1879: Dru Txikiaren lehen igoera **Jean Charlet-Straton**, Prosper Payot eta Frédéric Folliguet-ek abuztuaren 29an.
- 1887: François Simond, **Émile Rey** eta Henri Dunod-ek Dru Handitik Txikiraino lehen zeharkaldia egin zuten soka luze batzuen laguntzaz abuztuaren 31n.
- 1913: irailaren 4an, alpinista talde handi bat aluminiozko Lurdeseko Amabirjinaren irudi bat igotzen saiatu zen Dru Txikian. Metro bete handi eta 13 kilokoak. Eguraldi txarra zela eta 3000 metro inguruan utzi zuten irudia. Beraien helburuak gerra osterako arte itxaron behar izan zuten, 1919ko irailaren 18 arte.
- 1935: ipar paretaren mendebaldeko ertzaren lehen igoera **Pierre Allain** eta **Raymond Leininger**-ek abuztuaren 1ean.
- 1938: lehendabiziko Druen neguko zeharkaldia **Armand Charlet** eta Camille Devouassoux-ek otsailaren 25ean.
- 1938: Dru Haundiaren hego-ekialdeko lehenengo igoera Laurent Grivel, M. eta Mme A. Frova-k abuztuaren 16an.
- 1952: Dru Txikia, mendebaldeko paretako lehenengo Lucien Berardini, Adrien Dagory, Guido Magnone eta Marcel Laine eskalatzailerak egin.
 - Dru Txikia, ipar paretaren, Henri eta Pierre Lesueur anaiek.
 - Dru Handia, hego paretako lehenengo **André Contamine** eta Michel Bastien-ek
- 1955: Dru Txikiko hego-mendebaldeko ertza, Bonatti ertza, Walter Bonatti handiak bakarrik eskalatu, alpinismoaren historiaren artelan handienetarikoa bezala kontsideratutako sei eguneko abenturan. Bonatti ertza, gainera, 2005ean goitik behera eroriko zen, betirako desagertuz eta historia mitoa eramanetik.
- 1973: Bi Druen arteko ipar korridorearen lehen igoera, Walter Cecchini eta **Claude Jager**-ek abuztuaren 28tik 31ra. Izotz eskalada modernoaren jaiotze alpinotzat hartutakoa.

Mendebaldeko aurpegiak berak, Chamonixko terrazetatik ikusgai, muturreko alpinismoaren jokaleku moduan, aparteko ikusmira izan du. Ametsen mundu eta lehoien zirku. Denak elkarrekin.